



IRABAZI ITURRIAK

Gure negozioan arropa, kantinplorak eta bestelakoak salduko ditugunez, aktiboen salmantan oinarrituko da, ondasunen truke diru kopuru bat jasoko dugulako.

Bi irabazi iturri izango ditugu:

Multinazionalen bidez:

Decathlonek, Forumek eta Intersportek transferentzien bidez ordainduko digute eta oso kopuru handiak eskatuko dizkigutenez, gero gure denda fisikoan baino diru gutxiago irabaziko genuke produktu bakoitzeko.



Denda propioen bidez:

Marka jada famatua denean, denda fisikoak irekiko ditugu. Bertan bezeroak eskudiruaz, txartelaz eta Bizumen bidez ordaindu ahal izango dute, eta online dendan, Bizum eta Paypal bidez. Bide honetatik, produktu bakoitzarengatik gehiago irabaziko dugu, baina gutxiago salduko dugu.



Hau jakinda, multinazionaleri saltzean, irabaziak ziurtatuta daude, ekoiztako produktu guztiak salduko direlako. Ez da gauza bera gertatzen denda fisikoetan, han ez baitago ziur ekoiztako guztia edo gehiena salduko den.



Gure dendetan saldu ez dena deskontuekin saltzen saiatuko gara, ondoren, gurekin lan egiten duten ONG-ei helaraziko dizkiegu. Horrela zeharkako publizitatea izatea lortuko dugu kostu extrarik ordaindu beharrik gabe.



Kobratzeko modua:

Kobrantza multinazionalekin errepikakorra izango litzateke, hilabetean behin jasoko genuke haien ordainketa. Denda fisikoetan, aldiz, kobroa banakakoa izango litzateke, guk eskainitako ondasunak indibidualki eta kantitate txikietan erosiko baitira.